

«*Ez da mattetzen erakutsi*». Azpeitia, hitanoa eta generoen arteko arrakala

Beñat Muguruza Aseginolaza, Garbiñe Bereziartua Etxeberria,
Juanito Etxeberria Murgiondo

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak eta ikertzaileak

Hitanoaren erabileran alde handia dago igorlearen nahiz hartzailearen generoaren arabera: joera orokortua da hika gutxiago egiten dutela emakumeek, eta egiten zaiela emakumeei, eta gizonen arteko erabilera gailentzen dela. Ikerketa honetan Azpeitian hitanoarekikoak zertan diren aztertu dugu. Galde-sorta bidez 1.247 herritarren erantzunak jaso ditugu. Lortutako datuen arabera, Azpeitia hitanoa sendo dagoen gune gutxietako bat izanik ere, patroï berari segitzen dio, eta alde handiak ikusten dira adinaren eta generoaren arabera. Parte-hartzaile helduek horren atzean egon litezkeen arrazoiak zein diren erantzun dute galde-sortan. Gure jendarteko egiturazko sexismoa da gako nagusia, hortik eratortzen diren hainbat faktorek pisu handia baitute hizkuntzen erabileran.

GAKO-HITZAK: Hika · Noka · Generoa · Hizkuntza-tratamendua · Aditz-forma alokutiboak.

«*We haven't been taught to love it*». Azpeitia, *hika* and gender gap

There is a considerable difference in the use of the Basque informal form of address *hika* depending on the gender of both the speaker and the hearer: the overall trend is that women use *hika* and are addressed in *hika* to a lesser extent, and it is in man to man communication where it prevails. In this study we examine the use of *hika* in the town of Azpeitia. We collected the responses of 1,247 participants via questionnaire. According to the data we gathered, although *hika* remains strong in Azpeitia, we observed the same pattern, as there are large differences depending on age and gender. Adult participants explained the possible answers to that issue in the questionnaire. The structural sexism in our society seems to be the main key, since several factors stemming from it play a strong influence in language use.

KEY WORDS: *Hika* · *Noka* · Gender · Form of address · Allocutive verb forms.

Hitanoa izango dugu hizpide esku artean dauzkagun orrietan. Beste hizkuntza askok bezala, euskarak ere baditu jendeari zuzentzeko tratamendu bat baino gehiago, testuinguruaren arabera aukeratzen direnak. Esan genezake XXI. mendean bi baino ez direla erabilera arruntekoak: zuka aritu ohi dira euskal hiztun gehienak, baina hitanoak bizirik segitzen du Euskal Herriko hamaika zonatan. Dena den, tratamendu informala delakoaren osasuna gorabeheratsua da hainbat faktore aintzat hartuta; dela geografia, dela adina, dela generoa. Hitanoa osasuntsuen mantentzen den herrietako bat Azpeitia da eta hori izan da gure ikerketa gauzatzeko aukeratu dugun herria.

Jakina da hitanoaren ezaugarri bereizgarrietako bat dela generoaren araberako banaketa, hau da, hartzailearen arabera aldatu egiten dira erabili beharreko aditz-forma gehienak. Baina ezaugarri linguistikoetatik haratago, soziolinguistikatik begiratzen badiogu ere generoen artean alde nabarmenak daude hitanoaren erabileran. Beraz, orokorrean hitanoaren erabilera zein den ikusi nahi dugu, baina bereziki genero-aldagaiak zer erakusten duen aztertu nahi dugu. Hitanoaren osasuna indartsu egotetik urrun baldin badago, hitanoaren baitako nokako formen osasuna oraindik ahulagoa da. Errealitate horren atzean egon litezkeen arrazoiak zein izan diren arakatu nahi genuke orri hauetan aurkezten dugunarekin.

1. Atal teorikoa

Atal teorikoa lau azpiataletan dago banatuta. Lehenik, ikusiko dugu nork egin ohi duen hika, norekin egiten duen errazago, eta zein testuingurutan. Beste modu batera esanda, hiztunek hika egitea erraztu edo oztopa dezaketen aldagaien gainean jardungo gara. Ondoren, genero-aldagaiari erreparatuko diogu, alde handiak baitaude erabileran. Erabilera horietan sakonduko dugu. Segidan, desoreka horren atzean dauden zergatiak azaltzen ahaleginduko gara, adituek egindako ikerketen argitan. Azkenik, gure ikerketa Azpeitian kokatuta dagoen neurrian, Urola bailarako herrian hitanoarekikoak zertan diren erakutsiko dugu.

1.1. Hitanoaren erabilera: noiz, nork eta norekin egiten dugu?

Ez dago arau idatzirik hitanoaren alderdi soziopragmatikoen gainean. Joera nagusi batzuk egon dira historian zehar, baina erabilera aldakorra izan da, eta irizpide zehatzak definitzea lan nekeza. Azken hamarkada hauetako erreferentziei helduko diegu lan honetan.

Hitanoa nagusiki bi harreman motatan erabili izan da: goitik beherakoetan eta berdinen artekoetan. Goitik beherako harremanetan autoritatea eta botere-desoreka adierazi ohi izan ditu. Familian eta lan-munduan, beraz, ohikoa da tratamenduen erabilera asimetrikoa: gurasoek hika egingo diete seme-alabei baina seme-alabek zuka bueltatu (de Rijk, 1991; Alberdi, 1993). Gauza bera gertatuko da, nahiz eta ez hain modu argian segur aski, nagusiaren eta langilearen artean (Alberdi, 1993).

Alberdiren (1994) arabera, hikako testuingururik ohikoena anai-arreben edo lagunen artekoa da, baina berdinen arteko edo elkartasunezko harreman horietan konplexuagoa da egoera.

Berdinen arteko harremanetan, elkarrizketaren gaiak eta testuinguruak eragina dutela dirudi. Alberdik (1993) dioenez, hika egitea brometan aritzearekin lotu ohi da gehiago, eta zuka gai serioagoetarako uzten da. Esaten duenez, hitanoa gehiago entzungo dugu tabernan edo mendian, edo jai-giroan oro har.

Adinak paper garrantzitsua jokatzen du hitanoaren erabileran. Normalean hika egingo zaio gazteagoari edo adinkideari. Adinkide noraino diren bi pertsona, de Rijk-ek (1991) muga hori 15 urteko tartean kokatzen du, eta Alberdiren (1993) ustez belaualdi bateko jauzira arte hitanoaren erabilera simetrikoa erraz onartzen da.

Sexua da, ondorengo azpiatalean ere ikusiko dugun bezala, hika egin ala ez determinatzen duen faktore nagusietako bat. Alberdik (1994) azaltzen duenez, sexu berekoen arteko elkarrizketak hika izatea ohikoa da, baina, orokorrean, beste sexuko norbaitekin hitz egitea da hika egiteko oztopoko nabarmenetako bat. Gainera, egoera horietan tratamenduaren erabileran asimetriarik gertatzen bada, normalean emakumeak toka egingo dio gizonari, baina gizonak zuka emango dio bueltan. Sexu bereko elkarrizketetan, halaber, gizonen artean maizago egiten da hika emakumeen artean baino.

Ahaidetasun-maila ere aldagai garrantzitsua da tratamenduen erabilerara begira. Jakina, zenbat eta harreman hurbilagoa, orduan eta aukera gehiago hika egiteko (Alberdi, 1993). Adibidez, hitanoa bizirik dagoen eremuetan, anai-arreben artean hika egitea da arruntena. Gaineko paragrafoan aurreratu bezala, hemen ere asimetriak egoten dira maiz, eta gehiago darabilte hitanoa emakumeek anaiekin alderantziz baino (Alberdi, 1993).

Hainbat autorek ikusitakoaren arabera, hiltunen arteko kidetasun-mailak ere eragin handia du. De Rijk-ek (1991) dioenez, antzeko bizi-baldintzetan bizi direnek errazago joko dute hika egitera, direla familia edo auzo berean hazitako umeak, baserri edo lantoki bereko langileak, eta abar. Urlak (1995) euskal irrati libreak ikertu zituen, eta ondorioztatu zuen esatariek, gizonezkoek batez ere, askotan hika erabiltzen zutela espazio horretan nolabaiteko burkidetasun horizontal ('horizontal comradeship') bat sortzeko entzuleekin. Horrekin lotuta, Alberdik (1993) elkartasun psikologikoa delakoa hartzen du hitanoaren bultzatzaile nagusizat. Hau da, norbait begiko izatean edo norbaitek sinpatia sortzean errazago aterako zaio hika egitea solaskideari.

Aipatutako aldagai guztien artean, sexua da beharbada hitanoaren erabilera gehien baldintzatzen duena. Generoen arteko desberdintasunak handiak dira: nokako formen erabilera asko murriztu da azken hamarkada hauetan, eta desagertzear egon daitekeela uste dute zenbait ikertzailek (Alberdi, 1993; Echeverria, 2003).

1.2. Hitanoa eta generoa: berdintasuna urrun

Euskara hizkuntza ez-sexistatzen hartu izan da (García Meseguer, 1977), baina Barquín-ek (2008) eta Juanenak (1991) ohartarazi dute aldagai asko hartu behar direla kontuan baieztape horiek egiteko orduan: hiztegia, hitz batzuen existentzia hutsa, kontzeptu zenbaiten gabezia lexikoa, eta eremu semantiko jakin baten aberastasuna ala pobrezia, besteak beste. Beraz, hizkuntzaren erroan baino gehiago, hizkuntza horren erabilera egon liteke gakoa.

Begoña Echeverría autore euskal-amerikarra izan da, segur aski, hitanoaren eta generoaren arteko auzia sakonen aztertu duena, ertz askotatik heldu baitio gaiari. Jean Duvoisin idazle lapurtarrak XIX. mendean itzultitako biblia xehe-xehe aztertu zuen Echeverriak (2016), eta ondorioztatu zuen itzultzaileak noka erabiltzeko hautua egiten zuenean oro har hartzaile bizigabeari konnotazio negatiboak esleitzeko baliatzen zuela. Esaterako, Jerusalemgo hiriri noka zuzentzen zaio etengabe, mespretxuz, hango gertaera tamalgarriak leporatzen dizkionean. Echeverriak (2003) Euskal Herriko eskoletako testuliburuetan ere arakatu zuen hitanoaren erabilera, eta ikusi zuen erabilera urria izanda ere baztertzalea zela, emakumearen kaltetan. Normalean toka ari ziren testuliburuetakoa pertsonaiak, gizona gizonari, baina baita hartzaileak bai gizon bai emakume zirenean ere. Juanenak (1991) lehenagotik ere jasoak zituen halako adibideak, baina beste esparru batean: erakundeen propaganda-mezuetan ere erabili izan dira gizona zuzentzeko aditz-formak, nahiz hartzaileak gizona zuzentzeko bakarrik ez izan. Hori saihesteko bi bide proposatu zituen Juanenak (1991): zuka erabili, edo bai toka bai noka idatzi mezuak. Barquínek (2008), ildo beretik, Antton Olariaga komikigileak Zakilixut pertsonaiaren bidez sortutako '-nk' morfema erabiltzea balekotzat jotzen du, emakume eta gizonen formak konbinatuz.

Legorburuk (2018) Antzuolan ikusi zuen gizonak beti toka egiteko joera dutela, bai gizona bati ari zaizkionean, baina baita beste emakume bati zuzentzerakoan ere. Azken urte luzeotan beste joera bat identifikatu izan dute autore batzuek: gizonak ez ezik, emakumeek ere egin ohi diete beste emakumei toka. Azkuek (2000) Zumaiako gazteen artean ikusi zuen joera hori ez zela inola ere salbuespenezkoa, eta Ozaitak (2014) Tolosaldeko gazteen artean ere jaso zituen adibideak. Horrez gain, hika egiten dutenen artean beste ohiko jarrera batzuk ere sexistatzen hartu izan dituzte: aipatu bezala, talde misto bati zuzentzerakoan gizona zuzentzeko formak baino ez erabiltzea (gizonen aldetik, batez ere), aurrean emakumerik egongo ez balitz bezala (Barquín, 2008).

Joera horiek gorabehera, hitanoa biziberritzeko ahaleginak egiten ari dira han-hemen; horietako batzuk, genero-ikuspegi argiarekin. Izan ere, feminismoetatik hasi dira hitanoa aintzat hartzen emakumearen ahalduntze-tresna gisa (Legorburu, 2018). Esparru akademikoan oraindik apenas landu den arren, badaude motiboak pentsatzeko gizartean nolabaiteko interesa zabaltzen ari dela. Hitanoa ikasteko ohiko ikastaroez gain, bestelako jardura batzuen lekuko izaten ari gara, gehien-gehienak nokako formatan edota emakumeengan arreta jartzen dutenak; esate baterako, 2018ko EHUko Uda Ikastaroetan antolatutako «Hitanoa eta generoa: aberastasuna

ala sexismoa?» jardunaldiak edota horretan oinarrituta *Argia* aldizkariak *Nokaren galera* izenburupean kaleratu zuen hileroko *Larrun* gehigarri monografikoa (Irureta, 2019). Emakumezkoen hitanoak bizi duen egoera kaxkarra dela batetik, eta tresna horrek emakumeen ahalduntzean joka dezakeen papera dela bestetik, herri-mailako ekimenak atergabe ari dira loratzen. Esate baterako, 2019an Oñatin «Ingo Xonau!» ekimena jarri dute martxan, herriko emakumeek hitanoari lotuta izan dituzten bizipenak jasotzeko hasiera batean, eta hurrengo urteetan hitanoa eta bereziki noka hauspotzeko bokazioarekin. Urte bereko hondarrean Gabirian antolatu duten «Nokaldia» da beste adibide bat: herritarrentzat formazio teoriko-praktikoa eskaini ostean, Euskaraldiaren antzeko filosofiarekin, hika ahalik eta gehien egiten ahalegindu ziren, bereziki emakumeak, eta emakumeei.

1.3. Nokaren beherakadaren arrazoiak

Lakoff-ek (1973: 46) bere garaian esan zuen moduan, «women experience linguistic discrimination in two ways: in the way they are taught to use language, and in the way general language use treats them». Alegia, hizkuntza desberdin erabiltzen erakusten zaiela, eta hizkuntzak desberdin tratatzen dituela.

Gerora ere garatu da afera hori zenbait ikuspegitatik. Esaterako, Piller eta Pavlenko-ren (2004: 492) arabera, postestrukturalismo feministatik egiten diren hurbilketek kapital sinboliko forma gisa ulertzen dute hizkuntza: «Language use, in turn, is considered a situated process of participation in multiple and overlapping communities of practice, which may entail the negotiation of ways of being a person in that context». Beste ikerketa berriago batzuek soziokonstruktibismoaren, postmodernitatearen eta soziolinguistika feministaren esparrura ekarri dute hizkuntzaren eta generoaren arteko auzia (Holmes, 2007), edo postfeminismoa proposatzen dute horretarako tresna kritiko gisa (Litosseliti, Gill eta Garcia Favaro, 2019).

Ikuspegi soziokonstruktibista batetik, eta hizkuntzen forma eta erabilerari erreparatuta, Ochs-ek (1992: 339) honako hau argudiatzen du: «[n]on-referential indexing of gender may be accomplished through a vast range of morphological, syntactic, and phonological devices available across the world's languages». Hau da, hizkuntzen ezaugarri batzuk eta hizkuntzak erabiltzeko moduak genero batari edo besteari lotuta leudeke. Ideia horiek gure testuingurura ekarrita, Echeverriak (2003: 404) zera dio: «In Ochs's (1992) terms, what these ideologies show is that "hi" indexes certain social meanings (spontaneity, directness, naturalness, anger, fun, peasantness), which in turn index masculinity». Echeverriaren (2003) irudiko, hitanoa esangura jakin batzuekin lotzen da gizartean, izan bat-batekotasuna, konfiantza, naturaltasuna, umorea edo zuzentasuna. Ezaugarri horiek gizontasunari hobeto legozkioke, eta ez hainbeste emakumeaz espero denari. Gainera, euskaldun petoarekin lotzen dugu hitanoa, eta euskaldunon iruditeria kolektiboan euskaldun petoa gizonezkoa izan ohi da, aurrez aipatu dugun testuliburuen kasuan ikusi dugun bezala (Echeverria, 2003).

Echeverriaren (2003) ustez, hitanoaren eta maskulinitatearen arteko lotura hori agerikoa da. Zergatik, ordea? Hau da, zergatik mantendu da hitanoa, gutxi-asko, gizonezkoen artean, eta emakumezkoa elkarrizketa batean sartzen denean ia desagertu? Galderak ez du erantzun errazik, baina argi dago faktore ugari eragin dutela horretan.

Hizkuntza baten edo hizkuntza bateko ezaugarri baten prestigioak eragina du erabileran. Aritu ugari aipatu dute prestigio altuko hizkuntza-aldakerak erabiltzeko joera handiagoa dutela emakumezkoek gizonezkoek baino (Labov, 1972; Trudgill, 1995). Gal-ek (1979) Austrian eta MacDonald-ek (1989) Britainian ondorioztatu zuten emakumeek errazago bazterten zituztela, gizonekin alderatuta, baseritarren hizkuntza edo ospe txarreko hizkera, eta maiz jotzen zutela estatus altuagoko hizkuntzara, zeina normalean hirigunearekin gehiago lotzen baitzen. Ochs-ek (1992) antzeko joera ikusi zuen ingeles britainiar eta amerikarrean, non emakumeek prestigio handiagoko aldaera fonologikoak gehiagotan erabiltzen baitzituzten klase sozial eta etnia bereko gizonekin konparatuta.

Echeverriaren (2003) ustez, joera hori indartu zuen XX. mendearen erdialdean euskaldun askok baserriko bizitza abandonatu behar izanak; emakumeak hirira joan behar izateak, neskame, zerbitzari edo antzeko lanetan, euskara erabilia ere gutxitan egin ahal izango baitzuten hika posizio horretatik. Gainera, beste testuinguru batzuetan gertatu bezala, emakumeak erraz baztertuko zituen prestigio gutxiko euskara, eta are ospe txarragoko hitanoa. Gizonek, berriz, fabrikara joaten zirenean, maiz herri bereko edo inguruko langileekin egiten zuten topo, eta hika gordetzea askoz errazagoa zitzaien lankide, adinkide, herrikideen artean.

Hitanoak esanahi desberdinak ditu gizonak ala emakumeak erabili. Gizonen kasuan, hika elkartasunarekin, anaitasunarekin eta konfiantzarekin lotzen den bezala, emakumeak hika egitea zabartzat jotzen da maiz, errespeturik gabe hitz egitearen moduko zerbitzari. Autore askok azpimarratu dute hitanoaren ospe txarraren eragina transmisioaren etenean, eta bereziki emakumeek egitea egon dela gaizki ikusita (Echeverria, 2003; Beitia, 2017; Legorburu, 2018). Ideia berari lotuta, ikerketa horietan guztietan aipatzen da gizonak espazio publikoan izan duen erabateko nagusitasuna, eta ondorioz, emakumeen presentzia eza. Noka, beraz, etxe barruan geratuko zen, eta beste inon ez egoteak ez zuen transmisioan lagunduko. Tokako formak nonahi entzun zitezkeen esparru publikoan, eta horrela bilakatu ahal izan zen neurri batean gizonen arteko hitanoa natural eta ezagun. Emakumeen arteko hitanoak, bien bitartean, kontrako bidea egin du.

Hizkuntzen ezaugarri paralinguistikoak kontuan hartuta, Bourdieuk (1982) argudiatu zuen gorputzaren eta hizkuntzaren erabilera erabat lotuta daudela, mugimenduak adierazten baitu mundu sozialarekin dugun harremana. Legorburuk (2018) ekarri zuen Bourdieuren ideia euskarara, eta hain zuzen hitanoaren eremura: hitanoa azkartasunarekin eta bizitasunarekin lotu ohi dugu, arestian aipatu bezala, eta badirudi ezaugarri horiek gorputz maskulinoekin hobeto datozela bat. Izan ere, Legorburuk (2018) ondorioztatu zuen gizonezkoak gehiago eta azkarrago mugitzen zirela, espazio handiagoa hartuz. Gizonezkoek hika emakumezkoek baino askoz

gehiago egiteko beste arrazoi bat izan liteke gorputzaren eta hizkuntzaren arteko lotura hori.

1.4. Hitanoa Azpeitian: arnasmune abiapuntu

Esan bezala, euskararena bezala, hitanoaren osasuna ere oso gorabeheratsua da. Leku batzuetan ez da ia erabiltzen, beste batzuetan zerbait bai, eta gutxi batzuetan oraindik bizi-bizirik segitzen du. Egunerokotasunean normaltasunez erabiltzen den herri horietako bat da Azpeitia (Alberdi, 1996; Soziolinguistika Klusterra, 2016).

Azken urteotan zenbait ikerketa ondu dira Azpeitian, bai hizkuntzen erabilera neurtzeko oro har, bai hitanoaren hainbat aspektutan sakontzeko. Lau ikerketa izango dira jarraian aurkeztuko ditugunak (Aranguren, 2012; Azpeitiko Euskara Patronatua, 2012; Soziolinguistika Klusterra, 2017; Alberdi-Zumeta, 2019). Lehenengo hirurek (Aranguren, 2012; Azpeitiko Euskara Patronatua, 2012; Alberdi-Zumeta, 2019) dimentsio xumea daukate baina horietako emaitzek ere hitanoaren erabilerarekin lotutako zenbait joera ikusteko balio dezakete. Soziolinguistika Klusterrak (2016) egindako ikerketa da laugarrena eta horrek ekarpen mamitsuagoa egiten du.

Aranguren (2012) 15-16 urteko hamar herritarri eta 26-27 urteko beste hainbesteri erreparatu zien. Haien hika egiteko ohiturengatik galdetuta, helduen taldeko guztiek erabiltzen omen zuten hika, bai emakumezkoekin bai gizonezkoekin. Gizonek gizonekin emakumeekin baino gehiago erabiltzen zutela erakutsi zuen ikerketak. Gaztetxoan artean mutilek bai, baina neska gehienek ez zuten erabiltzen; bik baino ez omen zuten hika egiten, eta oso gutxitan gainera.

Azpeitiko Euskara Patronatuak (2012) Batxilergoko 2. mailako ikasle guztiei (n=103) pasa zien oro har euskararen eta bereziki hitanoaren erabileraren gaineko inkesta bana. Anai-arreben eta adiskideen arteko hitanoaren erabilerari dagokionez, honako hauek azpimarra ditzakegu: nesken % 3k baino ez dio hika¹ egiten ahizpari, eta % 6k nebari. Mutilen artean, % 10ek egiten dio hika arrebari, eta % 44k anaiari. Lagunarteko harremanetan joera antzekoa da, baina aldeak are handiagoak. Izan ere, nesken % 2k du ohitura emakumezko lagunekin hika egiteko, eta % 4k mutilei hika egiteko. Mutilen hizkuntza-ohiturei erreparatzerakoan ikusten da amildegia: % 4k egiten die hika emakumezko lagunei, baina % 94ra arte igotzen da hitanoaren erabilera beste gizonezko lagunekin mintzatzen direnean.


Alberdi-Zumetak (2019) egindako analisi etnografikoan, mutil gazte azpeitiar gehienek hika baino ez dute egiten lagunartean beste gizonezkoekin, eta batzuetan talde misto baten aurrean hitz egiterakoan ere bai. Beste batzuetan zuka egiten dute neska-mutilez osatutako taldeari zuzentzeko, eta halaber zuka gailentzen da neskekin hitz egiten dutenean, nahiz tarteka nokako esaldiren bat bota. Nesken artean zukarako joera erabat nagusitzen da Alberdi-Zumetaren (2019) azterketan; tarteka toka mutilei edo noka neskei, txantxetan-eta normalean, baina arau orokorra tratamendu formala erabiltzea da.

1. Ikerketan «hika» edo «hika gehiago» emaitzak hemen «hika» erantzun bakarrera sinplifikatu ditugu, emaitzak ahalik eta modu argienean erakuste aldera.

Ezaguna da Soziolinguistika Klusterrak bost urtean behin gauzatzen duen Euskal Herriko hizkuntzen kale-erabilera neurketa. Bada, antzeko metodologia erabilia neurtu zuen hitanoaren kale-erabilera bai Azpeitian (Soziolinguistika Klusterra, 2016) bai Usurbilen (Soziolinguistika Klusterra, 2017), eta Azpeitiko ikerketak utzitako datuak erakutsiko ditugu hemen. Metodologia, funtsean, behaketan oinarritzen da; aurrez Soziolinguistika Klusterrak berak formatutako behatzaileek ordu jakinetan eta leku jakinetan herritarren hizkuntza-erabilera erregistratzen dute, beste zenbait aldagai ere kontuan hartuta: adina, sexua, eta umeen presentzia, besteak beste (Altuna, 2002).

Behatzaileek aditutako 1.103 elkarrizketetan, eta horien partaide ziren 3.283 herritarren artean, % 81,8 euskaraz ari ziren. Euskaraz ari ziren guztiak kontuan hartuta, horien % 18,1 ari zen hika. Kontuan hartu behar da aditzik gabeko esaldiak zukakoekin batera zenbatu zituztela. Hika ari ziren horien artean, % 45,1 ari zen toka, % 17,5 noka, eta gainerako % 37,4 forma neutroren bat erabiltzen ari zen («goizean ikusi haut» edo «nora joan haiz ba?» modukoak). Hiztunen sexuaren arabera ere banatu zituzten emaitzak: emakumezkoen % 10,6 ari zen hika, eta gizonezkoen % 28,1.


Datuak hiztunen sexuaren arabera banatzearekin batera, hiztun horiek noka, toka ala hikako aditz neutroak erabiltzen zituzten ere zehaztu zuten ikerketako emaitzetan. Hori ikus dezakegu 1. irudian:



1. irudia. Hitanoaren kale-erabilera sexuaren arabera, ehunekotan. (Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Azpeitiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016).

Noka erabiltzen dutenak nabarmen gehiago dira emakumezkoak eta toka erabiltzen dutenak nabarmen gehiago dira gizonezkoak. Eta toka egiten duten emakumezkoak gehiago dira noka egiten duten gizonezkoak baino. Ikerketak ez du zehazten hartzailearen sexua, baina, beste ikerketa batzuek erakutsi dutena kontuan hartuta, ez da segurua emakumezkoek hika egiten zietenek nokako formak erabiltzea.

Hitanoaren erabilerari buruzko datuak adin-taldeka bereizita ere erakutsi zituzten ikerketaren emaitzetan, 2. irudian ikus daitekeen bezala. Grafikoak erakusten duenaren arabera, umeak entzun zituzten gutxien hika egiten (% 5,5), baina gainerako adin-tarteetan nahiko orekatuak izan ziren emaitzak: gazteen % 25, helduen % 23,5 eta adinekoen % 29,8. Azken horiek izan ziren ikerketan hitanoaren erabiltzaile nagusiak.



2. irudia. Hitanoaren kale-erabilera adin-taldeka.
(Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Azpeitiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016).

Segidan ageri den 1. taulan toka eta nokaren erabilerak konparatzen dira. Ez dira kontuan hartu hikako forma neutroak, eta horregatik ez datoz bat 1. taulako ehunekoen baturak 2. irudiko ehunekoeekin. Ikusi dugu umeek gutxi egiten dutela hika Azpeitian, esku artean dugun ikerketaren arabera, baina portzentaje apalak izanda ere, toka izan zen nagusi txikiaren artean (% 2,5 toka; % 0,3 noka). Gainerako adin-tarteetako herritarrek askoz gehiago aditu zituzten hika. Esaterako, noka aditu zuten gazte bakoitzeko, ia beste 9 aditu zituzten toka (% 15,1 toka; % 1,7 noka). Helduen artean ere aldea handia da, noka aditu zuten heldu bakoitzeko beste hiru pasatxo entzun baitzituzten toka (% 10,3 toka; % 3,3 noka). Adinekoen artean alderaketak

oso bestelako emaitza uzten digu: gehiago ziren toka ari ziren adinekoak, noka ari zirenak baino, baina aldea askoz estuagoa da (% 12,6 toka; % 10,7 noka). Taula honetan joera argi bat dago: nokaren erabilerak nabarmen egiten du gora parte-hartzaileen adinarekin batera. Ehuneko orokorreari begira antzeman daiteke hori, baina bereziki atentzio handia ematen du tokako formen erabilera-ehunekoekin alderatzen badugu.

1. taula. Adin-tartearen arabera toka eta noka entzundakoehunekoak (%).

	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Toka	2,5	15,1	10,3	12,6
Noka	0,3	1,7	3,3	10,7

Marko teorikoan landutako ideia nagusiak laburbilduz, ikusi dugu hika hitz egitea hautu markatua dela euskal hiztunen arteko komunikazio-egoera gehien-gehienetan. Gainera, hika egin ala ez erabakitzeko garaian hiztunak —jabetu gabe, normalean— kontuan hartzen dituen aldagaiak zein diren ikusi dugu, eta horretan sexuak duen berebiziko garrantzia azpimarratu dugu. Segidan, azaldu dugu hitanoaren bidezko sexu-diskriminazioa ohikoa dela euskaldunen artean, bai gizonari hika eta emakumeari zuka egiteagatik, bai tokako formak erabiltzeagatik talde mistoaren aurrean edo zuzenean emakumeari hitz egiterakoan, besteak beste. Dena den, azken urteotan emakumeen artean hitanoa indartzeko loratzen ari diren ekimenen zerrenda luzearen lagin txiki bat ere erakutsi dugu. Ondoren, hitanoak emakumeen artean behera egin izanaren atzean egon daitezkeen balizko arrazoiak mahaigaineratu ditugu, gure emaitzak ulertzeko baliagarriak izango direlakoan. Azkenik, gure ikerketa-eremua Azpeitia denez, bertan egin diren ikerketen berri eman dugu, eta batez ere Soziolinguistika Klusterrak 2016an egindako kale-erabileraren neurketa izan dugu oinarri.

2. Metodologia

2.1. Helburua eta ikerketa-galderak

Ikerketa honen helburu nagusia hitanoaren erabileraren barrunbeetan arakatzea da. Horretarako, hitanoa egunerokotasunean erabiltzen den testuinguru batean kokatu gara, Azpeitian hain zuzen ere. Ikerketaren helburu nagusia arestian aipatutako hori izan arren, helburu zehatzagoak ere planteatu ditugu: batetik, hitanoaren erabilerari buruzko diagnostikoa egiteko datu zehatzak eskuratzea; eta, bestetik, hitanoaren baitako bi formen artean dauden desberdintasunen jakitun izanda eta emakumezkoek hitz egiteko nokako formak daukan osasun eskasa ezagututa, horren atzean dauden arrazoiak zein izan litezkeen ezagutzea. Helburu horiek oinarri hartuta hiru ikerketa-galdera mahaigaineratu ditugu:

1. Zenbat egiten dute hika Azpeitiko biztanleek senideen artean eta lagunartean?
2. Generoaren eta adinaren aldagaiak kontuan hartuta, zein desberdintasun daude hitanoaren erabileran Azpeitiko biztanleen artean?
3. Zein dira emakumezkoek eta emakumezkoek hika egiteko ohiturak behera egitearen arrazoiak?

2.2. Datuak biltzeko tresnak eta datuen azterketa

Mahai gainean jarritako ikerketa-galderen erantzunak aurkitzeko erabilitako tresna galde-sorta bat izan da. Galde-sortako itemak galdera irekiz eta itxiz osatuta zeuden, jasotako erantzunak zenbakizkoak ez ezik narratiboak ere izan zitezten, modu horretan erantzun mamitsuagoak lortzeko xedez.

Galde-sorta formatu digitalean sortu eta bi bertsio diseinatu genituen; bata 18 urtetik gorako parte-hartzaileentzat eta bestea 12-18 urte artekoentzat. Helduen galde-sorta item gehiagoz osatua zegoen: galdera irekiak helduei bakarrik egin zitzaizkien, konplexutasun handiagoko kontzeptuei buruz hausnartzeko gaitasun handiagoa izango zutelakoan eta ideia konplexuak hitzetan jartzeko erraztasun handiagoa izango zutelakoan. Emaizten atalean erakutsiko ditugun erantzun narratiboak 18 urtetik gorako parte-hartzaileengandik bakarrik jaso ditugu.

Galde-sortak parte-hartzaileei helarazteari dagokionez, hainbat bide erabili dira. 12-18 urte bitartekoen kasuan eskola-orduetan betearazi genien: ikertzaileok ikastetxearekin hitz egin ondoren adostutako orduetan joan eta ikasleek euren ordenagailuak erabiliz bete zituzten galde-sortak. 18 urtetik gorakoen kasuan elur-pilota efektuan oinarritutako laginketa-teknika erabili genuen (Baltar eta Brunet, 2012). Horretarako Whatsapp, Facebook, Twitter eta helbide elektronikoez baliatu ginen. Horrez gain, galde-sortaren inprimatutako bertsioak utzi genituen zaharren egoitzan, teknologiarekin zailtasunak eduki zitzaizketen adineko pertsonak ere ikerketan parte hartu ahal izan zezaten.

Behin datu guztiak bildutakoan datu numerikoak aztertzeko SPSS Statistics 24 programa erabili dugu eta datu narratiboak aztertzeko NVivo 11 programaz baliatu gara.

2.3. Parte-hartzaileak

Aurrez esan bezala, ikerketa hau Azpeitian gauzatu dugu. 15.000 biztanlek osatzen duten herria da, eta Euskal Herriko 10.000 biztanletik gorako herrien artean euskaldunenetakoa. Aurrez aipatu bezala, Soziolinguistika Klusterrak hizkuntzen kale-erabilera neurtzeko egindako azken ikerketan (2016) parte-hartzaileen arteko % 81,9 izan zen euskaraz ziharduena. Eta hitanoari dagokionez ere bertako biztanleen artean egunerokotasunean txertatuta dagoen mintzamolde bat da (Alberdi, 1996; Soziolinguistika Klusterra, 2016).

Guztira 1.247 subjektoren erantzunak bildu ditugu ikerketa honetan: 18 urtetik gorako 850 lagun eta 12-18 urte bitarteko 397 lagun. 2. taulan ikus daitezke parte-hartzaileei buruzko datuak modu xeheagoan:

2. taula. Parte-hartzaileei buruzko informazioa.

	Adin-tartea	Kopurua (n)	Generoa
DBH eta Batxilergoko ikasleak	12-18	n=397	♀: % 52,3 ♂: % 46,7
18 urtetik gorako herritarrak	18-25	n=91	♀: % 73,1 ♂: % 26,9
	26-35	n=170	♀: % 70,6 ♂: % 29,4
	36-45	n=301	♀: % 69,3 ♂: % 30,7
	46-60	n=207	♀: % 63,5 ♂: % 36,5
	+61	n=81	♀: % 50 ♂: % 50

3. Emaitzak

Azterlan honen helburua betetzeko hiru ikerketa-galdera zehaztu ditugu eta horien arabera antolatuta aurkeztuko ditugu emaitzak.

1. ikerketa-galdera: Zenbat egiten dute hika Azpeitiko biztanleek senideen artean eta lagunartean?

Alberdiren (1993) arabera batez ere bi eremutan erabili izan da hika: senideen artean eta lagunartean. Bi eremu horiei begirako datuak erakutsiko ditugu ondorengo lerroetan.

Senideen artean hika erabiltzeko dagoen joerari begira jarrita, desberdintasunak ikusten dira bai adin-multzo bateko eta besteko parte-hartzaileek emandako erantzunetan eta bai genero bateko eta bestekoeekin gertatzen denaren artean. 3. taulan ikus daitezke kopuru zehatzak:

3. taula. Senideen artean hika (%).

		Ahizpari / Arrebari	Anaiari / Nebari
+18	♀	38,3	53
	♂	44	79,2
12-18	♀	4,8	15,2
	♂	19,6	50

Ahizpari edo arrebari egiten zaionari erreparatuz, 18 urtetik gorako emakumeen arteko % 38,3k egiten dio ahizpari hika, eta kopuru hori % 4,8ra jaisten da 12-18 urte bitarteko nesken kasuan. Gizonezkoen kasuan, berriz, 18 urtetik gorako arteko % 44k eta 12-18 urte bitarteko arteko %19,6k egiten dio arrebari hika. Adin-tarte batetik bestera kopuruak nabarmen egiten du behera, emakumezkoen artean zortzi aldiz gutxiago eta gizonezkoen artean erdiek baino gutxiago.

Neba edo anaiari hika egiteko ohitura gehiago dagoela erakusten dute datuek, bai adina eta bai generoa edozein izanda ere. Baina horren baitan badaude desberdintasunak kasu batzuetatik besteetara. 18 urtetik gorako parte-hartzaileen kasuan emakumeen arteko % 53 eta gizonezkoen arteko % 79,2 da nebari edo anaiari hika egiten diona. 12-18 urtekoen kasuan kopurua herenera jaisten da 18 urtetik gorako arteko emakumezkoetatik (% 53) 12-18 urte arteko nesketara (% 15,2). Gizonezkoen artean ere, hainbeste ez izan arren, behera egiten du anaiari hika egiteko joerak, 18 urtetik gorako gizonezkoen arteko % 79,2k egitetik 12-18 urtekoen arteko mutilen % 50ek egitera.

Lagunartean egiten denari erreparatuko diogu orain. Jasotako datuetan ikusi ahal izan dugunez helduetatik gazteetara apaldu egin da hika egiteko joera eta desberdintasun nabarmenenak generoen artean ageri dira. 4. taulan ikus ditzakegu datu zehatzak:

4. taula. Lagunartean hika (%).

		Lagun emakumezkoari	Lagun gizonezkoari
+18	♀	44,9	50,5
	♂	42,1	93,2
12-18	♀	2,4	13
	♂	16,1	87,1

Lagun emakumezkoei egiten zaienari begira jarrita, ikusten da 18 urtetik gorako emakumezkoen % 44,9k egiten diela hika, eta gizonezkoen % 42,1ek. 12-18 urte artekoen artean ehunekoek asko egiten dute behera, emakumezkoen artean % 2,4 baita beste emakumezkoei hika egiten diena, eta gizonezkoen artean % 16,1.

Lagun gizonezkoei hika egiten dietenen kopuruak nabarmen altuagoak dira, nahiz eta haien artean alde nabarmenak egon. Parte-hartzaile helduei dagokienez, emakumezkoen arteko % 50,5 eta gizonezkoen arteko % 93,2k egiten diete hika. 12-18 urte bitarteko parte-hartzaileen artean antzematen da alderik handiena: nesken arteko % 13k baino ez diete hika egiten gizonezko lagunei, eta mutilen arteko % 87,1ek.


Ikerketa-galdera honetako emaitzen sintesi bat eginez, orokorrean senideen artean hika egiteko joerak behera egin du parte-hartzaile helduetatik gazteetara, bereziki emakumezkoei egiten zaienak. Eta emakumezkoek hika egiteko daukaten ohiturak ere (izan ahizpari ala izan nebari) behera egin du, gizonezkoengan egon den beherakadan baino pikoago. Lagunartean egiten denari begiratuta, ikusten da hika gehien erabiltzen den harremana bi mutilen artekoa dela, eta kasu horretan ez da beherakada handirik ikusten parte-hartzaile helduetatik gazteetara. Hika gutxien erabiltzen den harremana nesken artekoa da eta hor erabilerak nabarmen egin du behera helduetatik gazteetara. Beherakada horri xehetasun gehiagoz begiratuko diogu 2. ikerketa-galderako emaitzetan.

2. ikerketa-galdera: Generoaren eta adinaren aldagaiak kontuan hartuta, zein desberdintasun daude hitanoaren erabileran Azpeitiko biztanleen artean?

Azpeitiko biztanleen artean hika zenbat egiten duten ikusi dugu lehenengo ikerketa-galderan. Datu horietan ikusi dugu genero batetik bestera aldeak daudela hitanoaren erabileran eta hika egiteko joerak behera egin duela adin-tarte altueneko subjektuetatik adin-tarte baxueneko subjektuetara. Ikerketa-galdera honetan hor gertatzen denari xehetasun gehiagoz begiratuko diogu.

Aurreko ikerketa-galderako emaitzetan esan dugun moduan, Alberdik (1993) bi testuinguru jotzen ditu bereziki apropostzat hika aritzeko: senideen arteko harremana bata eta lagunartea bestea. Testuinguru horietan adinak behera egin ahala eta emakumezkoak elkarrizketan sartzen diren heinean hitanoaren erabilerak behera egiten duela erakusten duten bi irudi aurkeztuko ditugu jarraian.


3. irudian parte-hartzaileek lagunartean daudenean erabiltzen duten hitanoari buruzko datuak agertzen dira, igorlearen eta hartzailearen generoak bereizita. 18 urtetik gorako eta 12-18 urte bitarteko datuak bi galde-sortaren bidez jaso ditugu baina ikerketa-galdera honi erantzuteko informazioa ematen zuen itera berbera zen bi galde-sortetan eta datuak elkartuta erakutsiko ditugu. 18 urtetik gorako subjektuak ere adin-tarteka bereizita erakutsiko ditugu, belaunaldien arteko aldeak argiago ikusteko.



3. irudia. Hitanoaren erabilera lagunartean (%).

Kopururik altuenetan mugitzen den lerroa gizonezkoak diren bi lagunen artean hika erabiltzen dutenena da. Adina edozein izanda ere, testuinguru horretan hika (toka) egiten duen parte-hartzaileen kopurua % 90en bueltakoa da. Gainontzeko egoerak islatzen dituzten lerroetan (gizonezkoa emakumezkoari, emakumezkoa gizonezkoari eta emakumezkoa emakumezkoari) argi ikusten da hitanoaren erabilerak behera egiten duela adinak behera egin ahala. Lerro guztiek beherako joera berbera erakusten dute, irregulartasun txiki batzuk gorabehera. Esate baterako, 45 urtetik gorako emakumeak hika aritzen dira bai gizonezkoekin eta bai emakumezkoekin, % 46,5etik % 69,2 arterainoko kopuruetan. Horrekin batera, gizonezko bat tartean ez dagoen kasuetan hitanoaren erabilerak nabarmen egiten du behera 18-25 urte bitarteko emakumezkoen artean eta 18 urtetik beherako emakumezkoen hika ia ez zaie egiten, ez gizonezkoek eta ez emakumezkoek.

Senideen artean hika egiteko dagoen ohitura aintzat hartuta, testuinguru horretan ohikoa izan da emakumezkoek beren nebei hika egin baina baita neba horiek zuka erantzutea ere. 4. irudian ikusten den moduan, hitanoaren erabileran desberdintasunak ikus daitezke adinaren eta generoaren arabera:




4. irudia. Hitanoaren erabilera anai-arreben artean (%).

Irudian ikusten denez, 61 urtetik gorakoen artean % 80 inguruk hitz egiten du hika beren senideekin, izan emakumezko ala izan gizonezko. Adin-tarte guztiei begira jarrita, erabilerarik altuena bi anaiaren artean gertatzen dela ikus dezakegu, baina hor ere beheranzko joera ikusten da adinak behera egin ahala. 61 urtetik gorakoen artean % 75ek egitetik 12-18 urte artekoen artean % 50ek egitera. Hikaren erabilerak nabarmen egiten du behera parte-hartzailerik gazteenen artean, eta adinak beherantz egin ahala gehiago, komunikazio-ekintzan emakumezkoen bat dagoenean. Ehunekoak bereziki baxuak dira 35 urtetik beherako emakumezkoak ahizparekin aritzean.

Erakutsitako bi irudiek adin desberdinetako parte-hartzaileek hika egiteko dauzkaten joerak islatzen dizkigute. 61 urtetik gorakoek tradiziozkozat hartu izan diren moldeei eusten diete, alegia, senideen artean eta lagunartean hika egiten dute. Baina adinak behera egin ahala genero-kategoriak hartzen duen pisua funtsezkoa da, bereziki 45 urtetik beherakoen artean. Nerabeen multzoan (12-18 urte) lagun mutilen artean bakarrik dirau indartsu hitanoak, eta anaien artean ere bai, neurri txikiagoan bada ere. Baina neskaren bat tartean denean, hitanoaren erabilerak behera egiten du, izan lagunartean ala izan senide artean, bereziki bi subjektuak neskak direnean.

3. ikerketa-galdera: Zein dira emakumezkoek eta emakumezkoei hika egiteko ohiturak behera egitearen arrazoiak?

Aurrez esan bezala, ikerketa-galdera honi erantzuteko 18 urtetik gorako subjektuei betearazitako galde-sortatik ateratako datuez baliatuko gara. Parte-hartzaileei galdetu genien zein izan daitezkeen nokako formen erabilerak behera egin izanaren arrazoiak. 5. irudian ikus daitezkeenez, gehiengoak (% 51,8) erantzun zuen ez zekiela arrazoi horiek zein izan daitezkeen. Emandako gainontzeko aukerei begira jarrita parte-hartzaileen arteko % 14k esan zuen nokak prestigio txarra edukitzea izan zitekeela arrazoiak. Beste batzuek erantzun zuten zatarra iruditzen zaiela (% 4,4) eta beste batzuek ez zuten beharrezkotzat jotzen hitanoaren baitako noka forma (% 2,9). Hona hemen 5. irudia:



5. irudia. Nokako formen beherakadaren arrazoiak (%).

Grafikoan agertzen den moduan, parte-hartzaileen herena inguruk (n=297) arrazoiak beste batzuk izan daitezkeela erantzun zuen eta beste galdera ireki batean eman zituzten azalpenak. Hor jasotako erantzunak ere zenbait kategoriatan multzokatu daitezke, horiek ikus daitezke 5. taulan:

5. taula. Nokaren galeraren arrazoiei buruzko galdera irekian jasotako erantzunen kopuruak.

Kategoriak	n (erantzun dutenen %)
Ohitura falta	71 (% 23,9)
Ez jakitea	69 (% 23,2)
Transmisioan etena egon izana	36 (% 12,1)
Prestigio txarra	36 (% 12,1)
Sexismoa	23 (% 7,7)
Eredurik ez izana	12 (% 4,04)
Zailagoa izatea	9 (% 3,03)
Axolagabekeria	5 (% 1,6)
Bestelako erantzunak	36 (% 12,1)
GUZTIRA	297 (% 100)

Nokako formek behera egin izanaren atzean egon daitezkeen arrazoiei buruz galdetu eta subjektuek modu irekian erantzun dutenean gehiengoak erantzun du ohitura falta izan litekeela horren arrazoia. Esate baterako erantzun honetan:

Ohitura falti (desgraziz berdintasune nahi arren neu naiz hika neska gutxiri iteionetako bat eta mutil danai hika iteiou). Ez obie o txarro dalako. [AZ-307]

Nokako formen ezaguerarik ez izatea ere parte-hartzaile askok emandako erantzunetan irakurri ahal izan dugu. Hemen, adibidez:

Ez dakigula noka egiten. [AZ-822]

Aurreko bi arrazoiak uztartzen dituzten erantzunak ere jaso ditugu:

Nik uztet beti eon dala ohitura gehio hitanoa mutilen artien erabiltzeko, horreatik pentsatzet noka eite ohitura horren ondoroyue dala, gentiek ez dakiyela ondo erabiltzen. [AZ-634]

Eta ohitura faltarekin lotuta, nokako formen zailtasuna aipatu duenik ere bada, hau esaterako:

Ez gaudelako ohituta zailagoa egiten zaigu, ez baitugu erabiltzen (orokorrean). [AZ-775]

Baina ohitura eta ezjakintasunetik haratagoko erantzunak ere jaso ditugu. Alegia, benetan horren atzean egon daitezkeen arrazoiak ere aipatu dituzte parte-hartzaileek, horien artean noka ikasteko ereduak falta izana eta transmisioan etena egon izana aipatuz. Hona hemen bi arrazoi horiei erreferentzia egiten dieten zenbait erantzun:

Ez denez hainbeste entzuten, gazteoi gehiago kostatzen zaigu erabiltzea, ez baitakigu ondo erabiltzen. [AZ-31]

Transmisioa txikiagoa izan da, gurasoek gutxiago erakutsi dute etxean noka egiten. Eskoletan ere ez da irakatsi. [AZ-462]

Ez da mattetzen erakutsi. [AZ-478]

Aurreko belaunaldiei ezer leporatu beharrean erantzukizuna noka egiten ez dutenengan jartzen duenik ere bada, axolagabekeriari erreferentzia eginez:

Ez da baloratzen eta askori ez zaie axola ondo ala gaizki egitea. [AZ-665]

Galde-sortako itemeko erantzun itxien artean emandako aukera bat «nokaren prestigio txarra» izan zen eta parte-hartzaileen % 13,6k aukeratu zuen erantzun hori, baina galdera irekietan ere beste 36 erantzunetan esaten da nokaren prestigio txarra dela bere beherakadaren arrazoia. Noka hitz egitea errespetu faltarekin lotu izan dela aipatu dute parte-hartzaile batzuek, esate baterako erantzun honetan:

Nik uste det errespetu faltieatik izen lehizkela, ez errespetu faltie dalako baino holaxe erakutsi digutelako. [AZ-516]

Ildo beretik, edukazio txarrarekin ere erlazionatu izan da, erantzun honek erakusten duen moduan:

Nik ustet hoi aspaldiko kontue dala edukazio eza bezela ikustem zen garai batean ikaz itzegitea batik bat emakumeen artean.(tamalgarriz). [AZ-230]

Noka hitz egitea zakartzat edo itsusitzat hartu izan dela esan dute parte-hartzaile batzuek:

Gazteak ginela, emakumeek hika egitea itsusia zela esaten ziguten. [AZ-464]

Sektore batzuetan, gordina edo lotsagabea iruditu zaiolako hainbati. [AZ-809]

Parte-hartzaile batzuek adierazi dute hitanoak honelakoak sentiarazi izan dizkiela:

Gogorra egiten zait, ordinariora, bastoa. [AZ-22]

Niri ez zait iñoiz gustatu emakume bati nokaz hitz egitea nahiz eta jakin hitz egiten. Nahiago dut zukaz hitz egin beraiekin. [AZ-659]

Hitanoaren baitako nokako formek izan duten ospe txarrarekin batera, nokak izan dezakeen ukitu femeninoaren arbuioa izan da aipatu den beste arrazoi bat:

Igual, amaneratu tonua edo itxura har dezakelako gizonak. [AZ-807]

Noka egitea femeninoa ote delakoan... uste dute beti toka egiten dutenek. Gizonezkoztatuna azpimarratzeko, alegia. Prejuizioak...

Aurreiritziak! [AZ-738]

Hari beretik tiraka, sexismoa izan da aipatu den beste arrazoietako bat:

Genero rolak haurtzarotik ezartzen zaizkigu eta hitanoaren erabilera beste adierazle bat da. Segurtasunezko, konfidantzazko eta erosotasunezko komunikazio kanala dela ulertuta, emakumezkoen atxikitzen zaizkien beldurrek, 'gaizki ez egitearen eragileak'... Baldintatzen du erabilera. [AZ-309]

Matxista xamarrek gealako, emakumik goxo tratau ber ditugula pentsatze deulako. [AZ-311]

Tokak erabilera publikoa izan duela denbora luzez, eta noka (emakumeen hartuemanak) eremu pribatuak izan direla. [AZ-216]

Parte-hartzaileei nokako formen gutxitzearen atzean egon daitezkeen arrazoiak zein izan daitezkeen galdetutakoan hainbat izan dira aipatutako arrazoiak, baina guztien oinarrian egiturazko sexismoa dagoela dirudi. Mahaigaineratu ditugun ikerketa-galderei gure ikerketarekin aurkitu dizkiegun erantzunak aurkeztu ditugu emaitzen atalean. Jarraian horien gaineko eztabaidari eta hausnarketei emango diegu bide.

4. Eztabaida

1. ikerketa-galdera: Zenbat egiten dute hika Azpeitiko biztanleek senideen artean eta lagunartean?

Ikerketa-galdera honi erantzuteko garaian, teoriarik aipatutakoak eta gure ikerketaren emaitzak alderatzean, Azpeitian kokatutako lanak aipatuko ditugu, baina Soziolinguistika Klusterrak (2016) egindako ikerketan aurkeztutako emaitzak hartuko ditugu oinarritzat.

Batetik, Aranguren (2012) lagin txiki bat behatu bazuen ere, antzeko joera berresten da gure ikerketan: gaztetxo eta helduen artean alde handiak antzematen dira, helduek gehiago egiten baitute hika. Eta alde horiek biderkatu egiten dira sexu-faktorea tartean sartzen bada, emakumeek, eta zer esanik ez emakume gazteek, askoz gutxiago erabiltzen dutelako hitanoa. Bestetik, Azpeitiko Euskara Patronatuak (2012) egindako ikerketak eta gureak oso zenbaki antzekoak eman dituzte, eta beraz indartuta ateratzen dira erakutsitako joerak. Gazteek hitanoa erabiltzeko daukaten ohiturari begiratuta, mutilek elkarren artean hitz egiteko asko erabiltzen dute, baina elkarrizketan neska bat sartzen denean izugarri jaisten da. Patronatuak egindako lanak Batxilergoko 2. mailako ikasleei baino ez zien erreparatu, eta guk 12-18 urteko gazteen emaitzak erakutsi ditugu, eta hortik etor litezke zifren arteko alde txiki batzuk. Azkenik, Alberdi-Zumetaren (2019) lan etnografikoan jasotako emaitza kualitatiboak nekez konpara daitezke gure inkesta bidezko emaitza kuantitatiboekin, baina joerak gutxi-asko errepikatu egiten dira. Berrito ere, mutilen artean hitanoa osasuntsu mantentzen da, baina nesken artean oso gutxi erabiltzen da.

Soziolinguistika Klusterrak (2016) egindako lanean kalean entzundakoari erreparatu zioten eta euskaraz entzundako elkarrizketen artean hika %18,1 izan zirela erakutsi zuten. Gure kasuan erabileraz zehatzagoari erreparatu diogu, senideen artean egiten denari eta lagunartean egiten denari hain zuzen ere, eta ondorioztatu dugu datuak ezin daitezkeela konparatu, alde handiak baitaude testuinguru batean nahiz bestean, genero batekoek nahiz bestekoek eta genero batekoei nahiz bestekoei egiten zaienaren artean.

Hala ere, bi alderditan konparatzeko moduko datuak daude: adinean eta generoan. Batetik, adinak behera egiten duen heinean hitanoaren erabilerak ere beheranzko joera erakusten duela ikusi dugu bi ikerketetan. Soziolinguistika Klusterraren (2016) ikerketako emaitzen arabera haurrak izan ziren hika egiten gutxien entzun zituztenak, baina gainontzeko adin-tarteetan emaitza orekatuak ikusi zituzten. Gure kasuan erabileraren jaitsiera nabarmenago ikusten da. Izan senideen artean edo izan lagunartean, zenbat eta adin gutxiagokoak izan subjektuak orduan eta gutxiago erabiltzen dute hika, gizonezkoen artean eta lagunartean izan ezik, hor erabileraz oso altu mantentzen baita adin-tarte guztietan.

Bestetik, genero bateko nahiz bestekoen erabileran eta genero batekoei zein bestekoei egiten zaien horretan alde handia dago. Soziolinguistika Klusterraren (2016) ikerketak erakutsi zuen noka erabiltzen zutenak nabarmen gehiago zirela emakumezkoak eta toka erabiltzen zutenak nabarmen gehiago zirela gizonezkoak. Gure ikerketan ez dugu zehazki neurtu emakumezko zein gizonezkoek noka ala toka egiten duten, baizik eta genero batekoari eta bestekoari hika egiten al dioten. Ikusi dugunez, gizonezkoek egiteko hika erabiltzen dutenak gehiago dira gizonezkoak bai senideen artean eta bai lagunartean, eta horretan bat egiten dute bi ikerketek. Baina gure ikerketan ikusitakoaren arabera, emakumezkoek egiteko hika erabiltzen dutenak ere gizonezkoak gehiago dira bai senideen artean eta bai subjektu gazteek lagunartean hika egiten dutenean. Emakumezkoek gizonezkoek baino maizago egiten dute hika, ordea, parte-hartzaile helduen artean emakumezko lagunari hitz egiterakoan. Logikak agintzen duen bezala, adineko jendearen jokabideak errazago egin ohi du bat Albedik (1994) duela 30 urte inguruko datuak erabilia zehaztu zituen irizpideekin.

Gure ikerketan emakumezkoek egiteko hika erabiltzen dutenei buruzko datuak erakutsi ditugu, baina horrek ezinbestean garamatza teoriarik aipatutako beste ideia batera: emakumezkoek hika egiten dieten horiek nola egiten diete, noka ala toka? Soziolinguistika Klusterraren (2016) ikerketako emaitzen berri ematean dagoeneko zalantza hori jarri dugu mahai gainean. Ikerketa horrek zehazten du igorlearen generoa zein den eta hika nola egiten duen, baina ez du zehazten hartzailearen generoa, beraz, ezin jakin dezakegu hika egiten ari den hori hartzailearen generoaren araberrako formak erabiltzen ari al den. Horrez gain, aipatu dugu zenbait ikerketak fenomeno berri bat erakutsi dutela: emakumezkoen artean ere tokako formak erabiltzea (Azkue, 2000; Ozaita, 2014). Esan bezala, ikerketa honetan ere ez dugu joera hori berretsi edo baztertzeko modurik.

2. ikerketa-galdera: Generoaren eta adinaren aldagaiak kontuan hartuta, zein desberdintasun daude hitanoaren erabileran Azpeitiko biztanleen artean?

Ikusitakoak ikusita, esan genezake generoak eta adinak berebiziko pisua daukatela hitanoaren erabileran. Teoriaren atalean irakurri ahal izan dugu emakumezkoek hitanoa gutxiago erabiltzen dutela gizonezkoek baino, eta emakumezkoek hika gutxiago egiten zaiela gizonezkoek baino (Alberdi, 1993; Aranguren, 2012; Azpeitiko Euskara Patronatua, 2012; Alberdi-Zumeta, 2019). Gure ikerketak ere norabide bereko datuak azaleratu ditu: hitanoaren erabileran desberdintasun handiak daude emakumezkoen eta gizonezkoen artean, bai senideen artean egiten den horretan eta bai lagunartean egiten den horretan, betiere emakumezkoenak izanik daturik baxuenak.

Adinari dagokionez, teoriaren atalean ikusi dugu zenbait ikertzailek (Alberdi, 1993; Legorburu, 2018) esaten dutela nokako formen erabilera asko murriztu dela azken hamarkadetan eta desagertzeare ere egon daitekeela. Gure ikerketak ez du fokua bereziki nokako formetan jarri, hitanoaren erabileran baizik. Baina esan genezake hika egiteko ohiturak behera egiten duela adinak behera egiten duen heinean, salbuespen batzuk badauden arren. Esate baterako, lagunartean gizonezkoen artean hitanoa osasuntsu mantentzen da adin-tarte guztietan, baina emakumezko bat tartean den elkarrizketa guztietan behera egiten du. Beraz, gure ikerketako emaitzek Alberdik (1993) eta Legorburuk (2018) esandakoarekin bat egiten dutela esan genezake. Senideen artean hika egiteko joerak ere beheranzko joera dauka baina 36-45 urte artekoetan, anaien artean joera hori hautsi eta erabilerak gora egiten duela ikusi dugu.

Alberdik (1994) ikusi zuen sexu desberdinen arteko elkarrizketek ez zutela hitanoaren erabilera areagotzen, eta hika/zuka egiteko garaian asimetriak gertatzekotan, emakumeak hikara gehiago joko duela gizonak baino. Azpeitian jaso ditugun datuetan agerikoa da joera hori; izan ere, adin-tarte guztietan errepikatzen da, eta bereziki 46-60 adin-tartean da nabarmena: emakumeen % 69,2k egiten dio hika gizonezko lagunari, eta gizonen % 52,7k emakumezko lagunari.

Anai-arreben artean ere joera hori presente dagoela ondorioztatu zuen Alberdik (1993), eta gure datuetan ere ageri da emakumeek nebari errazago egiten diotela hika, gizonek arrebari baino. Adin-tartearen arabera aldeak antzematen dira, ordea: 36-45 eta 46-60 urteko taldeetan, Alberdik (1993) deskribatutako joera alde handiz erreproduzitzen da; bi adin-tarte gazteenetan (12-18 eta 18-25), aldiz, gutxigatik bada ere, egoera irauli egiten da, alegia, arrebari hika egiten dioten mutilak gehixeago dira nebari hika egiten dioten neskek baino.

3. ikerketa-galdera: Zein dira emakumezkoek eta emakumezkoek hika egiteko ohiturak behera egitearen arrazoiak?

Emakumezkoek eta emakumezkoek hika egiteko ohiturak izan duen beherakadaren atzean egon litezkeen arrazoiak arakatzeko ahaleginak gara bai atal teorikoan eta bai gure ikerketaren emaitzen atalean. Orokorrean, nabari da teorian ikusi ditugun autoreek sakontasun gehiagoko analisiak egin izan dituztela gure

ikerketako subjektuek baino, baina parean jotzen duten arrazoiak ere hauteman ditugu. Esate baterako, teorian aipatu dugu transmisioan egon den etena hitanoaren baitako nokako formek izan duten ospe txarrarekin lotu izan dutela zenbait autorek (Echeverria, 2003; Beitia, 2017; Legorburu, 2018). Eta arrazoi horiek ere agertu dira gure ikerketako subjektuek emandako erantzunetan, nokako formak errespetu faltarekin, edukazio txarrarekin, zakartasunarekin edo itsustasunarekin lotu izan direla esan baitute.

Teorian, elkarrekin lotura izan dezaketen beste bi ideia ere aipatu ditugu: batetik, postestrukturalismo feministatik (Piller eta Pavlenko, 2004) hizkuntza kapital sinboliko gisa ulertu eta, modu horretara, testuinguru jakin batean bakoitzak bere nortasuna eraikitzekeo hizkuntza modu batean edo bestean erabili behar izateak lotura izan dezakeela gure testuinguruan hitanoa erabiltzeko ohiturekin; eta, bestetik, ikuspuntu soziokonstruktibista batetik Ochs-ek (1992) proposatutako ideiak gurera ekarri eta, Echeverriak (2003) esaten duen moduan, hitanoa gizartean esangura jakin batzuekin lotu eta ezaugarri horiek gizontasunari hobeto lotzen zaizkiola uste izatea. Bi ideia horiekin lotuta ikusten dugu gure ikerketako emaitzetan azaleratu den ideia bat: nokak ukitu femeninoa izan dezakeen ustea eta gizonezkoek horregatik forma horiek arbuia izana. Paragrafo honetan aipatutako bi ideiekin eta modu orokorragoan Lakoff-ek (1973) esandakoekin bat eginez, sexismoa da gure ikerketan jaso ditugun erantzunen artean beste bat.

Nokaren galeraren atzean egon daitezkeen beste zenbait arrazoi mahaigaineratu ditugu teoriaren atalean: emakumezkoek testuinguru bat baino gehiagotan jo izan dute hizkuntzaren aldaera jaso erabiltzera (Labov, 1972; Gal, 1979; MacDonald, 1989; Ochs, 1992; Trudgil, 1995) eta, hitanoari egotzi izan zaion ospe txarrak eraginda, gertatu ahal izan zen emakume euskaldunek ere hitanoa baztertu eta zutanora edo gaztelaniara jotzea; bestalde, Echeverriak (2003) aipatu moduan, XX. mendearen erdialdean euskaldunek izan zituzten enplegu-patroiek ere ez zieten lagundu emakumezkoek hika mantentzen; horrekin batera, espazio publikoan gizonezkoak nagusitu eta emakumezkoak ezkutuan gelditzeak ere ez zuen lagundu (Echeverria, 2003; Beitia, 2017; Legorburu, 2018); eta Bourdieuren (1982) ideiak gurera ekarri zituen Legorburuk (2018) esandakoaren harira, hizkuntzak eta gure gorputz-mugimenduek loturaren bat izan dezaketela onartuz gero, hitanoaren kasuan bere ezaugarriak gizonezkoekin lotzea ere nokako formen kalterako izan zen. Kontzeptu horiek beren horretan ez dituzte aipatu gure ikerketako subjektuek, baina uste dugu esku artean dugun artikuluan aurkezten dugun ikerketa egiteko erabilitako metodologia ez dela aproposena gai honi buruzko hausnarketa sakonak eskuratzeko. Gure ikerketan maila arinago batean kokatuko genituzkeen arrazoiak aipatu dira, besteak beste: ohiturarik eza, ezaguerarik eza, nokako formen zailtasuna edota hiztunen axolagabekeria.

5. Ondorioak, hausnarketak eta aurrera begirakoak

Orokorrean, hitanoaren gainean soziolinguistikaren ikuspuntutik egin izan diren ikerketak ez dira asko. Gure ikerketa Azpeitian kokatzen da eta han bertan kokatutako zenbait ikerketa egin dira, baina erabilitako metodologiak berberak izan

ez direnez, horrek bere aurkia eta ifrentzua dakartza: batetik, alderagaitz bihurtzen ditu egin diren ikerketetako emaitzak; bestetik, elkarren artean osagarri izan litezke egindako lanak. Dena dela, herria edozein izanda ere, hitanoaren bilakaera ikusi nahi badugu, ezinbestekoa da neurketa sistematikoak egitea.

Lan honetan behin eta berriro errepikatu den aldagaietako bat adina da. Horrekin batera ezinbestean azaleratzen den kontzeptua da transmisioan egondako etena. Hizkuntza baten gutxitzeari buruz hitz egitean eta hori gertatu izanaren arrazoiez aritzean, askotan aipatzen dira hizkuntzak ospe txarra edukitzea edo transmisioan etena egon izana. Zalantzarik gabe horiek izan litezke hizkuntza bat gutxitzearen arrazoi, baina iruditzen zaigu benetako arrazoiak ez direla transmisioan etena egon izana edo hizkuntza batek izan dezakeen ospe txarra; aitzitik, transmisio-eten horren eta ospe txar horren atzean dauden arrazoiak zein diren arakatu behar da. Zerk ekarri du hizkuntza bat ondorengo belaunaldi ez helaraztea? Nork eta zergatik erantsi dio ospe txarra hizkuntza bati, hizkuntza-aldaera bati edo hizkuntza-tratamendu bati? Uste dugu hor dagoela gakoa eta hori dela aztertu beharrekoa.

Belaunaldien arteko desberdintasunekin eta transmisioarekin lotuta, beste kontzeptu bat mahaigaineratu nahi genuke: *hizkuntza-sozializazioa*, hain zuzen ere (Kasares, 2015, 2017). Esan izan da hizkuntzak belaunaldi zaharretik gaztera transmititzen direla, baina hizkuntzak biziberritzen ari diren hainbat testuingurutan, eta urrutira joan gabe, Kasaresek (2017) egindako ikerketan, ikusi da tradiziozkoak izan diren transmisio-kanalak aldatzen ari direla. Hizkuntza bat ikas liteke adinkideen bidez edo baita belaunaldi zaharrek gazteen bidez ere. Hori da hizkuntza-sozializazio kontzeptuak azaltzen duena. Uste dugu hitanoaren errealitateari ere oso ondo egokitzen zaiola kontzeptu hori. Garai batean hitanoa etxean transmititu izan bada ere, egun ez da hori orokortua dagoen joera, eta susmatzen dugu hitanoa ikasten duenak batik bat kalean ikasten duela. Eta ez hori bakarrik, bereziki hainbeste gutxitu diren nokako formak berreskuratu nahi baldin badira, ezinbestean kontuan hartu beharreko bidea dela hizkuntzen sozializazioak erakusten diguna. Eredu hori ari dira segitzen esparru teorikoan erakutsi ditugun hainbat ekimen.

Adinarekin jarraituta, ikusi dugun beste gauzetako bat da adin-tarte gazteeneko subjektuak direla hika gutxien erabiltzen dutenak. Hori egoki interpretatzeko beste kontzeptu bat ere kontuan hartu behar dela iruditzen zaigu: *muda linguistikoak*, hain zuzen ere (Pujolar eta Gonzalez, 2013; Pujolar eta Puigdevall, 2015). Kontzeptu hori Katalunian sortu dute eta azaltzen dute bizitzan zehar badaudela zenbait garai hiztun elebidunek hizkuntza-ohiturak aldatzea errazten dutenak. Pujolar eta Puigdevallek (2015) sei garai biografiko identifikatu zituzten: (a) Lehen Hezkuntzan sartzeko unea; (b) Bigarren Hezkuntzan sartzeko unea; (d) Unibertsitatean sartzeko unea; (e) lan-munduan sartzeko unea; (f) familia osatzeko unea; eta (g) guraso izateko unea. Gure kasuan hitanoa ez da hiztunen errepertorioan dagoen beste hizkuntza bat, hizkuntza beraren aldaera bat baizik, baina iruditzen zaigu muda linguistikoen kontzeptuarekin azaltzen dutena oso ondo egokitzen dela testuinguru honetara. Identitatea eraikitzen ari diren gazteek eskura dauzkaten baliabideak erabiltzen dituzte horretarako, eta, hitanoa bizirik mantentzen den testuinguru soziolinguistikoetan, hitanoa ere baliabide horietako bat izan litekeelakoan gaude.

Gure datuetan ikusi dugunez, gazteak eta bereziki emakumezko gazteak dira hitanoa gutxien erabiltzen dutenak, baina agian gerta liteke oraindik hitanorako muda linguistikoa egin ez izana eta salto hori helduxeagoak direnean egitea. Horrek azal litzake, neurri batean, bereziki emakumezko gazteen artean ikusitako erabilera-ehuneko apalak.

Generoa da lan honetan behin eta berriro errepikatu den beste aldagaietako bat. Beste eremu askotan bezala, jendartearen egituraren dagoen sexismoaren itzala hizkuntzan ere ikus daitekeela esan genezake. Jakina denez, hizkuntza bat ez da komunikatzeko kode bat bakarrik; hizkuntza bat karga sinbolikoz josia egoten da eta hitanoaren kasuan ere horrela dela dirudi. Hizkuntzen baitan ere azaleratzen dira botere-harremanak eta handiak txikia zapaltzeko sena: gaztelaniak eta frantsesak euskara zapaltzen dute; euskararen baitan, zutanoak hitanoa zapaltzen du. Hitanoaren kasuan ez litzateke zuzena tokak noka zapaldu duela esatea, baina hor ere beste faktore batzuen eraginez ahuldutakoa irten da galtzaile. Boteretsuak ahula, aberatsak txiroa, gehiengoak gutxiengoa, gizonezkoak emakumezkoa.

Hizkuntza batek, hizkuntzaren aldaera batek edo, kasu honetan bezala, hizkuntza baten baitako tratamendu jakin batek izan dezakeen konnotazioak edo karga sinbolikoak horren biziraupena baldintzatu dezake. Baina aho biko ezpata da hizkuntza batek izan dezakeen konnotazioa. Hiztun-komunitate batek hitz egiteari uztea ekar lezake, baina egoera hori irauli ere egin daiteke, eta hilzorian zegoena biziberritu. Argi dago hitanoaren kasuan eta bereziki nokako formen kasuan azken hamarraldi luzeetan kontrako haizea izan dutela, baina teoriaren atalean aipatu moduan, noka berreskuratzeko egitasmoak loratzen ari dira eta, beren txikitasunean, komunitatearen onarpenera jasotzen ari dira. Beraz, batek jakin hitanoarekin eta nokako formekin zer gertatuko den.

Dena dela, beste edozein gairekin bezala, gai honekin ere hausnarketa sakonagoak egiteak beste testuinguru bat eskatzen duelakoan gaude. Kasu honetan galde-sorta bidez jasotako erantzunak izan dira aztertu eta erakutsi ditugunak. Baina erantzun mamitsuagoak eskuratzeko ezinbestekoa ikusten dugu metodologia kualitatiboetara jotzea. Hori da, hain zuzen ere, momentu honetan egiten ari garena. Orri hauetan aurkeztu duguna ikerketa zabalago baten zati bat besterik ez da, baina gai honetan sakondu eta sortzen zaizkigun galderentzat erantzun mamitsuagoak lortzeko lanean dihardugu.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- Alberdi, Xabier (1993): «Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak», *Fontes Linguae Vasconum*, 64, 425-442.
- , (1994): «Hitanoa non eta nork erabiltzen duen», *Euskera*, 39, 983-993.
- , (1996): *Euskararen tratamenduak: erabilera*. Iker 9, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Alberdi-Zumeta, Laura (2019): *Eta hik ze uste dun/k? Azpeitiko gazteak hitanoaren inguruan hizketan: usteak, balioak eta diskurtsoak* [Gradu Amaierako Lan argitaragabea], Deustuko Unibertsitatea.

- Aranguren, Maddi (2012): *Azpeitiko gazteak eta euskara* [Hiznet, sakontze-egitasmoa], <<https://hiznet.asmoz.org/wp-content/uploads/2018/10/Azpeitia.pdf>> (Kontsulta: 2019-12-27).
- Azkue, Xabier (2000): *Hitanoa Zumaian*, Zumaia-ko Udala, Zumaia.
- Azpeitiko Euskara Patronatua (2012): *Azpeitiko gazteen hizkuntza-ohiturak*, <http://www.erabili.eus/plangintzak/gurien/dokumentuak/2012/Azpeitiko_gazteen_hizkuntza_ohiturak_ONDORIOEN_TXOSTENA_ona.pdf> (Kontsulta: 2019-12-27)
- Baltar, Fabiola eta Brunet, Ignasi (2012): «Social research 2.0: virtual snowball sampling method using Facebook», *Internet Research*, 22(1), 57-74.
- Barquín, Amelia (2008): *Euskararen erabilera ez sexista*, Emakunde, Vitoria-Gasteiz, <https://www.ehu.es/documents/2007376/0/erabilera_ez_sexista>.
- Beitia, Iñigo (2017): «Tokanoka tribua. Eskoriatzako gazteak eta hitanoa: uste, balore eta jarrerak», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 103, 139-166.
- Bourdieu, Pierre (1982): *Ce que parler veut dire: L'économie des échanges linguistiques*, Fayard, Paris.
- de Rijk, Rudolf Peter Gerardus (1991): «Familiarity or solidarity: The pronoun *hi* in Basque», *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 36, 373-378.
- Echeverría, Begoña (2003): «Language ideologies and practices in (en)gendering the Basque nation», *Language in Society*, 32, 383-413.
- , (2016): «Harlots and whores but not lovers. Dressing down the pronoun for a female addressee in a Basque Old Testament», in Julie Abbou & Fabienne H. Baidier (ed.), *Gender, Language and the Periphery*, John Benjamins, Amsterdam/Philadelphia, 353-380.
- García Meseger, Álvaro (1977): *Lenguaje y discriminación sexual*, Edicusa, Madril.
- Irureta, Onintza (2019): «Nokaren galera», *Larrun (Argia)*, <https://www.argia.eus/astekaria/docs/2633/azala/larrun_239.pdf>.
- Juanena, Agurtzane (1991): «Hizkuntz sexismoa eta euskara», *Jakin*, 65, 97-110. <<https://www.jakin.eus/show/e811915964a32de3618523331f87587407df0498>>
- Kasares, Paula (2015): «Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai eta jomuga», *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 1(94), 13-45.
- , (2017): «Euskararen transmisioa: berrikuspena hizkuntza-sozializazioaren paradigmatik», in Jone Goirigolzarri, Xabier Landabidea eta Ibon Manterola (ed.), *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*, UEU, Bilbo, 27-51.
- Lakoff, Robin (1973): «Language and Woman's Place. *Language in Society*», 2(1), 45-80.
- Legorburu, Onintza (2018): «Genero rolek hitanoaren erabileran izan duten eragina: Antzuolako herritarren diskurtso eta praktikak», *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 109(4), 111-138.
- Litosseliti, Lia, Gill, Rosalind eta Garcia Favaro, Laura (2019): «Postfeminism as a critical tool for gender and language study». *Gender and Language*, 13(1). doi: 10.1558/genl.34599
- MacDonald, Maryon (1989): *We are not French: Language, culture and identity in Brittany*, Routledge, New York.
- Ochs, Elinor (1992): «Indexing gender», in Alessandro Duranti eta Charles Goodwin (ed.), *Rethinking context*, Cambridge University Press, Cambridge, 335-358.
- Ozaita, Josu (2014): «Tolosaldeko gazteek (16-28) hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktika», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 91, 83-103.
- Piller, Ingrid eta Pavlenko, Aneta (2004): «Bilingualism and gender», in Tej K. Bhatia eta William C. Ritchie (ed.), *Handbook of Bilingualism*, Blackwell, Oxford, 489-511.

- Pujolar, Joan eta González, Isaac (2013): «Linguistic “*mudes*” and the de-ethnicization of language choice in Catalonia», *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 16(2), 138-152. doi: 0.1080/13670050.2012.720664
- Pujolar, Joan eta Puigdevall, Maite (2015): «Linguistic *mudes*: how to become a new speaker in Catalonia», *International Journal of the Sociology of Language*, 231,167-187. doi: 10.1515/ijsl-2014-0037
- Soziolinguistika Klusterra (2016): *Azpeitiako hizkuntza-erabileraren eta hitanoaren presentziaren kale-neurketa. Eraitzen txostena*, [txosten argitaragabea], Soziolinguistika Klusterra, Andoain.
- , (2017): *Usurbilgo hitanoaren kale-erabileraren azterketa. Eraitzen txostena* [txosten argitaragabea], Soziolinguistika Klusterra, Andoain.
- Trudgill, Peter (1995): *Sociolinguistics: An introduction to language and society*, Penguin, Londres.
- Urla, Jackeline (1995): «Outlaw language: creating alternative public spheres in Basque free radio», *Pragmatics*, 5(2), 245-261.

